



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BANDOA **UDAL HAUTESKUNDEAK**

Larraulgo bizilagun guztiei jakinarazi nahi dizuet, aurreko bandoan azaltzen zen modura, datorren maiatzaren 22an izango diren Udal hauteskundetarako Herri Aukera taldearen zerrenda aukeratzeko, Udal honek egiten duen proposamena, ondorengo delarik:

-Larraulgo Udalaren ordezkari izateko, hau da, hautagai boluntarioak izan nahi dutenak, Udaletxean izena eman beharko dute martxoak 25a baino lehen. Hauen izenak Udaletxe sarrerako iragarki taulan eta web orrian jarriko dira.

-Martxoaren 27an egingo den herri bileran, bi bozketa egitea proposatzen da:

Lehenik herritar bakoitzak gehienez 4 hautagaien izenak proposatuko ditu.

Ondoren, lehenengo bozketari ekingo zaio, bertan, herritar guztiek proposaturiko hautagaien artean 12 hautagai aukeratuko dira.

Segidan, bigarrenengo bozketari ekingo zaio, bertan, Herri Aukera Taldea osatuko da, zazpi hautagaiekin eta hiru ordezkoeekin.

Osatzen den Herri Aukera taldeak, beraien artean aukeratuko dute zerrenda burua zein izango den.

Beraz, gaiak duen garrantzia ikusita, datorren martxoaren 27an izango den herri bileran ikustea espero dut.

Larraulen, 2011ko martxoaren 18an

ALKATEAK

Xabier Mujika Pagola